Toma la palabra el concejal Sr. Dufur que señala que hay que desbrozar y limpiar la zona de Ipetea, a su vez comenta el concejal Sr. Karrika que hay un remolque que no se sabe de quien es, que también habría que retirar y por último añade el concejal Sr. Gaztelu que además hay que quitar una rama que ha caído de un árbol contestando el alcalde Sr. De Potestad que se procederá a llevar a cabo dichos trabajos con el alguacil y los desempleados.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19,50 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2016ko ekainaren 28an, arratsaldeko 17:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Iñaki Xabier Yoller Urdiruz, Pedro Juan Karrika Narbaitz, Arkaitz Karrika Iribarren, Mikel Gaztelu Alonso eta Francisco Javier Dufur Oharriz, bilkuraburu alkatea, Luis de Potestad Tellechea, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Aneva Cilveti Loperena zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.- 2016KO APIRILAREN 11KO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2016ko apirilaren 11n egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2016ko APIRILAREN 7tik EKAINAREN 23a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, de Potestad jnk., 2016ko apirilaren 7tik ekainaren 23ra eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedienteen daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

3.- 2015EKO KONTUEN ESPEDIENTEAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Udala Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du udal kontuak jendaurrean egon diren bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu eta behin betiko onartzea proposatu du.

Hortaz, Udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- 2015eko udal kontuak behin betiko onartzea.

4.- 2016ko PLANTILLA ORGANIKOAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

De Potestad jk., alkateak, hitza hartu du eta jakinarazi du legeak ezarritako epean alegaziorik aurkeztu ez denez, 2016ko plantilla organikoa onartu behar dela behin betiko.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2016ko plantilla organikoa behin betiko onartzea, hona hemen:

Funtzionarioak

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %15,77 Lanaldi osoa.

Funtzionarioen izen-zerrenda.

Z.A.L.: Don Jesús Román Pedroarena Etulain.

Langile finkoak.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %28,35, Lanaldia: 28,56%.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %28,35, Lanaldia: 28,56%.

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: 35%.

Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea: Cristina Carra Garcia.

Behin-behineko lan kontratudunak:

Lanpostua: Euskara teknika Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Euskara. Maila: B. Lan egoera: Jardunean. Lanpostuko osagarria %6,73 Lanaldi osoa.

Behin-behineko langileen izen-zerrenda:

Euskara teknika Teresa Iribarren Larrea.

Orreaga eta Erroibarko Udalekin bateratutako zerbitzuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuko osagarriak: %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria. Kokalekua: Jardunean. Antzintasuna 2012/06/11

5.- BAKE EPAILEAREN IZENDAPENA.

Bake epaile titularraren eta haren ordezkoren karguak betetzeko iragarkia 2016ko maiatzaren 18ko 95. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, ezarritako epean eskaera bat izan da, Manuel Pedroarena Etulain jaunarena, eta Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritako ahalmen eta bateragarritasun baldintzak betetzen dituela kontuan hartuz, aho batez erabaki da:

1.- Aurizko Bake Epaile Manuel Pedroarena Etulain izendatzea.

2.- Nafarroako Auzitegi Goreneko Presidenteari hartutako erabakiaren berri ematea bai eta ziurtagiria bidaltzea, Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiaren 7. artikulua araberak, eta aipatutako karguetarako izendatutako identifikazio datuak.

6.- AURIZKO UDALAK SUSTATU DUEN ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA XEHAKATUAREN HASIERAKO ONESPENA

Alkateak, de Potestad jnk. Hitzak hartu du eta esan du Planaren hirigintza arautegiko hainbat gai zaharkiturik gelditu direla, bizilegunek irizpide berriak dituztelako, eta proposatu du bi gai aldatzea, herriko etxebizitzaren baldintza estetiko eta funtzionalak hobetzeko. Bi Zehaztapen Xehakatu dira (ez egiturazkoak), hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarri guztiari eragiten diote, I.K.O. eremua izan ezik. Indarrean dagoen Babes Plan Berezian ezarritako arautegiak hura arautzen baitu.

Aldaketek gaie hauei eragiten diete:

- Lurzati hertsikiak (Udal Planaren Hirigintza Arautegiaren 128 art.), eta
- Balkoi eta galerien hertsiketa (Udal Planaren Hirigintza Arautegiaren 138 art.)

Hauek dira proposatzen diren aldaketa zehatzak:

A.- Lurzati hertsiketa:

Indarrean dagoen 128. artikulua, 3. atalean honakoa dio: *“Lurzatiak harriz, adreilu luzituaz, forjaz edo landare-hesiz hertsiko dira eta 150 cmko altuera izanen dute gehienez ere; dena den harriz edo adreilu luzituz egindakoek gehienez ere 120 cm altuera izanen dute eta 150 cm raino forjaz edo landare-*

hesiz osatu ahalko dira. Burdin hesiek ez dute goiko aldean puntadunak izan behar.

Indarrean dagoen testua osatzea proposatu da, aukera emanez beheko zatia zurezkoa izateko, eta horrela geldituko litzateke: *“Lurzatiak harriz, adreilu luzituaz, zur betez, forjaz edo landare-hesiz hertsiko dira eta 150 cmko altuera izanen dute gehienez ere; dena den harriz, zurez edo adreilu luzituz egindakoek gehienez ere 120 cmk altuera izanen dute eta 150 cmraino forjaz edo landare-hesiz osatu ahalko dira. Burdin hesiek ez dute goiko aldean puntadunak izan behar.*

Aldaketa honen arrazoia da aurreko urteetan zurezko hertsia jarri direla eta gainerakoekin alderatuta ongi daudela, bizilagunei egokiak iruditzen zaizkiela eta egungo Udalak uste duela komenigarriagoa dela mota horretako hertsiei legezko babesa ematea ezikusiarrena egitea baino.

B.- Balkoien hertsiketa Begiratokiak.

Balkoi eta galerien hertsiketari buruz indarrean dagokion testua 138. artikuluan 4. atalean dago: *“Orokorrean, balkoi hertsia debekaturik daude, edozein dela ere hersteko erabili den materiala, zurgintza kristalduna, eta abar.”*

Kristaldun begiratokiak egiteko aukera ematea proposatzen da (berriak zein dauden balkoi edo galeriak herstea), eta aurreko atalaren ordean beste hau onartzea: *“Begiratoki kristaldunak egin ahal dira beti ere kanpoko hertsiketa beti ere arotzeriaz egin baldin bada eta alde bakoitzeko hertsiketaren azaleraren %80 baino gehiago beirazkoa baldin bada. Beirak termikoki isolatzailea izan behar du”.*

Aldaketa honen arrazoia da, K.I.O. delako eremuan izan ezik, haren balio historioengatik, Aurizko gainerako hiri-lurzoruan eta urbanizagarrian begiratoki kristalduna modu egokian orientaturik baldin badago, etxebizitzaren eta haietan bizi direnen erabilera eta energiaren aurrezpena hobetu ahal dela, herriko estétika kaltetu gabe.

Hirigintza Arautegia aldatzeko alkateak, de Potestad j., egin duen proposamenarekin ados egonik, udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Aurizko Udal Planaren Hirigintza Arautegiaren 128 eta 138 artikuluen aldaketa hasiera batean onartzea; hona hemen:

Udal Planaren Hirigintza Arautegiaren 128 art. (Lurzati hertsiketak):

“Lurzatiak harriz, adreilu luzituaz, zur betez, forjaz edo landare-hesiz hertsiko dira eta 150 cmko altuera izanen dute gehienez ere; dena den harriz, zurez edo adreilu luzituz egindakoek gehienez ere 120 cmk altuera izanen dute eta 150 cmraino forjaz edo landare-hesiz osatu ahalko dira. Burdin hesiek ez dute goiko aldean puntadunak izan behar.

Udal Planaren Hirigintza Arautegiaren 138.4 art. (Balkoi-begiratoki hertsiketa):

“Begiratoki kristaldunak egin ahal dira beti ere kanpoko hertsiketa beti ere arotzeriaz egina baldin bada eta alde bakoitzeko hertsiketaren azaleraren %80 baino gehiago beirazkoa baldin bada. Beirak termikoki isolatzailea izan beharko du”.

2.- Hori guztia behar bezala bideratzea, martxoaren 5eko 5/2015 Foru Legeak aldatu zuen Lurraldearen Antolakuntzako eta Hirigintzako 35/2002 Foru legearen 74. artikularekin zerikusia duen 79. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

7.- AURIZKO ESKOLA PUBLIKOA BERRITZEKO LANEN BALDINTZA PLEGUAREN ETA FINANTZA PLANAREN ONESPENA

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak 391/2016 Ebazpena eman zuela ekainaren 15ean eta haren bidez Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia, Haur hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) ikastetxe publikoak hobetetzeko eta birmoldatzeko obra proiektua gauzatzeko, eta Aurizko Udalari, aurkeztu duen proiektutik, 28.430,33 €, BEZ kanpo, 27.008.91 euroko diru-launtza eman zaio (%95) eta lanak adjudikatzeko baldintza plegua onetsi behar dela.

Adjudikatzeko prozedura publizaterik gabeko prozedura negoziatua da eta gutxienez hiru enpresa gonbidatuko dira, birplanteatze-akta 2016ko uztailaren 30 baino lehen egin behar da eta lanak 2016ko urriaren 1a baino lehen bukatu behar dira.

Modu berean jakinarazi du eskolako lokal bat egokitzeko diru-partida ez dela diru-laguntza horretan sartu baina lan horiek egitea ezinbestekoa denez, jantokiaren egoera legezatzeko, partida hori ere egitea proposatu du, diruz lagunduko den obra nagusiaren eranskin gisa. Azkenik, jakinda Tokiko Administrazioako Departamentuak aurreikusita duela 2017an diru-laguntzak ematea toki entitateei inbertsioak egiteko, proposatu du Departamentu horri lanak hasteko baimena eskatzea eta horiei dagokien finantza plana onartzea.

Udalabatzak, gaia aztertu ondoren, erabaki du aho batez:

1.- Aurizko Eskola Publikoa hobetu eta birmoldatzeko lanak adjudikatzeko baldintza plegua onartzea.

2.- Lokalak birmoldatzeko partidari dagozkion obrak egitea, 16.112,11 eurotan (bez kanpo), obra nagusiaren eranskin gisa.

3.- Tokiko Administrazioako Departamentuari obrak hasteko baimena eskatzea eta honako finantza-plana onartzea:

GASTUAK:

Aministrazioaren ezagumendurako aurrekontua 64.262,12 €

DIRU-SARRERAK:

Hezkuntza Departamenduko diru-laguntza-Obren Atala.....27.008,81 €

Obrari egokitutako diruzaintzako soberakina..... 37.253,31 €

Diru-sarrerak guztira 64.262,12 €

8.- 2016ko BASO JARDUEREN BALDINTZA PLEGUAREN ONESPENA

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du 2016. urterako toki entitateek sustatu dituzten baso jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituen otsailaren 17ko 115/2016 Ebazpenaren bidez emango diren laguntzak oraindik ebatzi gabe baldin badaude ere, lanak egiteko denbora gutxi egonen denez, baldintza plegua onartzea proposatu du, ebazpena iristen denean Udalak Ekilanek prestatu duen proiektuan aurreikusitako lanak adjudikatu ahal ditzan, horien oinarritzko prezioa 14.090,41 euro, BEZ barne delarik.

Aho batez erabaki da Ekilanek prestatu duen proiektuan aipatzen diren baso jarduerak adjudikatzeko baldintza administratiboen plegua onartzea, horiek adjudikatzeko prozedura publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izatea eta oinarritzko prezioa 14.090,41 euro, BEZ barne. Modu berean erabaki da eskualdean lan mota horiekin zerikusia duten enpresa guztiak gonbidatzea (Mendilan, Jaime Barberena, Asier Txikirrin, Zibur, eta abar).

9.- FINANTZA PLAN BERRIAREN ONESPENA, AURREKONTUAREN ALDAKETAREN ONESPENA ETA LINDUS 2 PROIEKTUAREN ASISTENTZIA KONTRATUAREN BALDINTZA PLEGUAREN ONESPENA

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du Lindus 2 proiektuari dagokionez hura onetsi dela bere aurrekontuaren %30eko jaitziera barne, hau da, 362.587 eurotik 257.168 eurora jaitziz. Halaber, eta Nafarroako Gobernuaren %25eko finantzaketa lortzen saiatu ondoren hori ez da lortu eta, hortaz, %25 horri %10a gehitu behar zaio eta Udalak bere gain hartu behar du, nahiz eta beste nonbaitetik finantzaketa lortzen saiatuko den.

Modu berean, jakinarazi du bilera egin zela Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuarekin, Ganasarekin eta Ekimen Berritzaileekin, besteak beste, proiektuaren finantzaketaz aritzeko, Udalak ezingo lukeelako ekimenei aurre egin. Bilera horretan adostu zen boluntarioen lana, 105.000 eurokoa, Ganasak bere gain hartzea. Modu horretan bakarrik, bai eta eskualdatuz edo zenbait ekimen egin gabe utziz, Udalak proiektuari aurre egin ahalko lioke.

Azkenik jakinarazi du akzioen eskualdatzea ezin dela egin proiektuaren berrespena sinatu aurretik, eta, hortaz, alde batetik eta proiektua aurrera ateratzeko, finantza plan berria onetsi behar da, %30eko jaitziera barne, baina, momentuz, ekimenak beste erakunde bati eskualdatzea kontuan hartu gabe. Beste aldetik proposatu du, 2016ko aurrekontuan aurreikusita ez baitago, 80.000 euroko aldaketa onartzea diruzaintzaren soberakinaren kargura, entitateak duen kredituaren bidez, eta horren oniritzia eman diotela Tokiko Administrazioaren Departamentuan, eta, azkenik, proiektuaren asistentzia adjudikatu behar denez, dagokion baldintza plegua onartzea proposatu du, prozedura irekia erabiltzea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea, bai eta kontratazio mahaiaren osaketa ere. Baldintza pleguari dagokionez esan du oinarritzko prezioa 80.000 € gehi %21 deko BEZ dela, proiektuaren asistentzia

osoa adjudikatzen baita, nahiz eta enpresa adjudikaziodunak kide bakoitzari dagokion zatia kobratu.

Bukatzeko alkateak, de Potestad jk., dio aurkezten duen proposamena egiten duela Auritzek atzera egingo balu proiektua bertan behera geldituko baita eta kide guztientzako kaltegarria izango litzateke, are gehiago kanpoan geratu diren proiektuen aldean aukeratua izan denean. Modu berean esan du sinatu ondoren Udalak edozein unean aipatutako ekimenen eskualdatzea egin ahal duela bai eta horietako batzuk ez egin, bere finantza ahalmenaren arabera.

Alkatearen, de Potestad jaunaren, azalpenaren ondoren, aho batez erabaki da:

1º.- Lindus 2 proiektuan parte hartzea eta haren buru izatea berrestea.

2.- 2016ko martxoaren 11ko bilkuran onetsitako finantza-plana aldatzea, eta honako finantza-planaren arabera konpromezua hartzea:

Aurrekontua, guztira:	FEDERreko laguntza 65%	Autofinantzaketa %35	Baterako finan. publik: %0
257.168 €	167.159 €	90.009 €	0 €

3.- 80.000 euroko aurrekontu aldaketa onartzea, diruzaintzaren soberakinaren kargura.

4.- Lindus 2 proiektuaren laguntza teknikoa adjudikatzeko baldintza plegua onartzea, prozedura irekiaren bidez adjudikatzea, eta haren oinarrizko prezioa 90.000 € gehi %21eko BEZ izatea.

5.- Honako Kontratazio Mahaia onartzea:

Mahaiburua: De Potestad j., Aurizko udalaren alkatea.

Mahaikideak: Yoller j., Aurizko Udalaren zinegotzia

Cesar Perez j., Nafarroako Gobernuko teknikaria.

Pablo Muñoz j., Ganasako teknikaria.

Idazkaria: Marisol Escurra and.

10.- BASOKO PRODUKTUEN APROBETXAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta esan du Erroibar, Orreaga eta Aurizko Udalek sustatu duten parke mikologikoaren proiektuarekin aurrera egiteko, beharrezkoa dela basoko produktuen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza onartzea.

Hortaz eta proposamena aztertuta, aho batez erabaki da basoko produktuen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza hasiera batean onartzea, hura bideratzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Nafarroako Toki Administrazioaren 6/90 Foru Legearen 325 artikulua betetzeko.

11.- EKUADORREKO NAFAR ELKARTEAREN LAGUNTZA ESKAERA

APROEK, Ecuador-Nafarroa Elkarteak "ME PONGO EN TUS ZAPATOS" ekimenaren bidez joan den apirilaren 16an Ekuadorren gertatu zen lurrikararen ondorioz kaltetuak izan ziren ikastetxeetako ikasleei lagundu nahi die, IKASLEAREN KITa emanez, bakoitza 15 eurokoa, eta laguntza ematea eskatu du.

Aho batez erabaki da Elkarte horri laguntza ematea 10 kit erosiz, bakoitza 15 eurotan; 150 € sartuko dira kontu honetan: AYUDA ESPECIAL-TERREMOTO ECUADOR, Nafarroako Rural Kutxa, 30080232543352204329 zk.

12.- ELEKTRIZITATEAREN HORNIDURAREN AZTERKETA

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta esan du udalak dituen hornidura zerbitzuen alorrean aurrezteko helburua lortzeko elektrizitatearen horniduraren kontratuak aztertu dituela beste enpresa batzuekin, Grupo 3E adibidez, eta horrek diola 1500 € aurreztu ahal direla, eta proposatu du argiteria publikoaren eta kultur etxeko horniduraren kontratuak enpresa horrekin egitea, eta gainerakoak Iberdrolarekin mantentzea.

Gaztelu zinegotziak galdera egin du eta alkateak, de Potestad jk. erantzun dio aldian-aldian ikusiko dela benetan aurrezten den ala ez.

Aho batez erabaki da argiteria publikoaren eta kultur etxearen kontratua Grupo 3E enpresarekin egitea eta gainerakoak Iberdrolarekin mantentzea.

13.- FUTBITO ATEAK ETA SASKIBALOI SASKIAK-INBENTARIOA

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Ibirikuko kontzejuarekin (Eguesibar) bereak diren futbito ateak eta saskibaloi saskiak eskuratzeko aukera negoziatu ondoren, Ibirikuko Kontzejuak Aurizko Udalari horiek ematea erabaki zuela.

Aho batez erabaki da:

1.- Emakida onartzea eta Ibirikuko Kontzejuari eskerrak ematea, aldi berean Aurizko historiari buruzko liburuaren bi ale emanez.

2.- Emandako materiala inbentarioan sartzeta.

14.- BILTEGIENTZAKO ETA ARTISAU-INDUSTRIA TXIKIENTZAKO EREMUAN LURZATIEN ADJUDIKAZIOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta esan du Udal honen helburuetako bat Aurizko garapen ekonomikoa dela eta industrialdea nahiko geldirik dagoenez eta hura arautzen duen arautegiak ez duenez jarduera ekonomikoa laguntza, arautegi hori gaurkotzea proposatu du, garapena erraztuko duten ekimenak lagunduz, jarduerak zabalduz eta hirugarrenen parte-hartzea erraztuz. Aurreko legegintzaldian horren aldeko erabakia hartu zen, norberaren eta merkaturaren egoerak aldatu ahal baitira. Horiek horrela eta jende interesatua dagoela kontuan hartuz, Udalaren hirigintza teknikariari saltzeko dauden bost lurzatiaren balorazioa egitea eskatu dio.

Hasteko BILTEGIEN ETA ESKULANGINTZAKO INDUSTRIA TXIKIEN EREMUAN LURZATIEN ESLEIPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI

honakoa erantsiko zaio ETA HIRUGARREN MAILAKO ZERBITZUAK, bulegoak, jarduera turistikoak, etab. jarri ahal izateko. Bigarren, ordenantzaren laugarren puntua erantsi eta aldatuko da, honakoa gehituz:

4. Lurzatiak "inter vivos" eskualdatuko ahalko dira, eskritura publikoa egin zenetik 20 urte pasatu ondoren. 20 urte baino lehen saldu badira, Udalak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gordeko du.

Lurzatiak alokatu ahal dira eta jardueraz aldatzeko 6. artikulua dionari men egin beharko zaio.

*Lurzatiak oinordetzaz edo mortis causaz eskualdatu ahalko dira, **jasotzailea aurreko paragrafoan ezarritako baldintzei subrogatuz.***

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da, Biltegien eta Eskulangintzako Industria txikien Eremuan Lurzatiaren Esleipena arautzen duen Ordenantzaren aldaketa hasiera batean onartzea, hura bideratzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Nafarroako Toki Administrazioaren 6/90 Foru Legearen 325 artikuluan ezarritakoa betetzeko.

15.- AUÑAMENDIKO ITUN ZUZENAREN BALDINTZEN ONESPENA

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta esan du Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari dagokionez eta bere garaian Idazkariak zerbitzu horiek kultur etxera eramateko aukerari buruz egindako txosten faboragarria ikusita, jakinarazi du kideak, hein batean behintzat, ados daudenez, proposatu du Mankomunitateari esatea hura osatzen duten Udalei eskatzea baldintza plegu bat onar desátela, Aurizko Kultur Etxeko (Orreaga karrika 31, 5 poligonoko 242 lurzatia) lehenengo solairuko zati bat (gutxi gora behera 60 m²) alokatzeko itun zuzenaren bidez, Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko egoitza administratiboa han jartzeko, hots, hiru bulego, bilera aretoa eta artxiboa, 5 urterako eta zerbitzua eskualde osorako denez, legeak mota horretako adjudikazioak egiteko ezarri dituen baldintza beteko lirateke. Lekua handitu eta hobetzeko lanen kostua mankomunitatearen kargu izango lirateke eta aldaketa lehen baino lehen egin behar denez, Udala ari da lokal horiek prestatzen. Aldaketa Udalaren langileek egingo lukete. Gelak banatzeko erabili diren material eta altzairu batzuk Gaztelu zinegotziak lortu ditu eta berak udalari eman dizkio, baina horiek jartzeko lanak entitate horrek bere gain hartu beharko ditu.

Yoller zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du nola dagoen kultur etxeko igogailua, eta alkatea, de Potestad jk., erantzun dio hondatuta dagoela eta konpondu eta mantendu beharko litzatekeela, baina Udalak ezin duela horren kostua bere gain hartu. Alokairuaren epea, behin bukatuta, berriro beharko litzateke. Dena den, lokal horiek berreskuratu beharko balira, edozein unean egin ahalko litzateke, eta Udalak gastuen kostua bere gain hartu beharko luke.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Alkateak, de Potestad jk. Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari Kultur Etxeko lokal batzuk itun zuzenaren bidez alokatzeko

egin duen proposamena onartzea, eta hori arautuko duen baldintza plegua ere onartzea.

2º.- Hartutako erabakia eta onetsitako baldintza pleguaren berri Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari jakinaraztea.

16.- RED NATURA 2000 DELAKOARI ALEGAZIOAK JARTZEKO MOZIOA (ABELTZAIN SISTEMA JASANGARRIAK)

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta esan du abere-laguntzei dagokienez, sei mila abeltzainetik mila bostehun gelditu direla larratze estentsiboaren diru-laguntzari gabe, horrek dakarren kaltea barne, eta gai horretarako oraindik ere 300.000 euroko fondoak badagoela dio.

Horiek horrela eta Aezkoak egin duen eskaera ikusita, harekin bat egitea proposatu du eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Kontseilariari helaraztea.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da Aezkoako Batzarre Nagusiak egin duen eskaerarekin bat egitea eta honako idazkia Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Kontseilariari helaraztea:

“Elizalde Andre agurgarria:

Joan den astean gure ibarreko abeltzainek 104/2016 Foru Aginduan ezarritako diru-laguntzen banaketaren jakinarazpenak jaso zituzten, eta horietan, besteak beste, larratze eta estentsibotasuna darabilten abeltzain sistema jasangarriei emandako diru-laguntzak biltzen dira.

Hautaketa irizpideen artean (24.5 art.) honakoa lehenesten da:

a) mendikotzat katalogatutako eremuko bazka-azalera, Natura 2000 Sareko azalera dituzten titularrenak hain zuzen ere.

Irizpide hau aplikatzearen ondorioz ustiategiek jasotako diru-laguntzen artean diferentzia handiak nabari dira, eta diferentzia horiek benetan ez daude: ustiategi guztiak goi mendian daude eta gure artean Natura 2000 Saretik kanpo gelditzen diren eremuak oso txikiak dira.

Hortaz, behean sinatzen dugun Udal eta Batzordeko ordezkariak eskatzen diogu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari arautegiaren puntu hau horrela izatea, gertatu diren diferentziak eman ez daitezten.

- Goi mendiko eta mendiko sailkapena duten eremuetako bazka-azalera eta bertako abeltzaintza ustiategi erregistratuei lehentasuna ematea.

Modu berean eskatzen dugu, etorkizuneko kanpainei begira, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak abeltzain sektorearekin harreman iraunkorra izatea diru-laguntzak arautuko dituen arautegia adosteko.”

17.- BESTERIK

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

Karbono aztarna

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du karbono aztarnari dagokionez Mikel Gaztelu eta Arkaitz Karrika arduratuko direla.

5 lizar, 2 sekuoia, 5 intxaurren, arte 1, 5 urki eta 5 astigar. Landareen kostua igorriko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Jarlekuaren konponketa

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du Gabino Urtasunek herriko jarlekuak konpondu dituela eta bakoitzeko bizkarraldean taila diferenteak egin dituela, eta lan hori zein herriari egindako ekarpena eskertu nahi dio.

Azienda marka

Alkateak, de Potestad jk. jakinarazi du 2016ko maiatzaren 14ko azienda markan 186 abelburu sartu zirela Antsobi eta Ataloztin eta gauzak ongi egin zirela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

RAC-Akelarrearen ibilbidea

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du akelarreen ibilbidearen proiektua Karrika Iribarren zinegotziaren eta Jon Beunzaren artean garatzen ari direla eta Irati Irratia harremanetan jarri dela zinegotziarekin elkarrizketa egiteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Poctefa- Lindus2 proiektua

Alkateak, de Potestad jk., Lindus2 proiektuari buruzko informazioa eman du, maiatzaren 14an emaitzak argitaratu zirela eta hautatutako lau proiektuen artean Aurizkoak %40 lortu duela.

Udako Unibertsitatea

Alkateak, de Potestad jk., egin diren hiru proposamenei buruzko informazioa eman du. Horietako bat Nafarroako Unibertsitatearena, beste bat EHUrena eta hirugarrena NUParena, ingurumeneko eta Done Jakue Bideko gaiak lantzeko.

Dena den erantzunaren zain gaude.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ipetea-plater tiroa

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du plater tiroa egiteko Ipetean garbiketa lanak egin behar direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Inbertsio fondoak

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du Udalak duen fondoak eta haren errentagarritasuna, orain arte igotzen ari bazen ere, gertakari politiko eta ekonomikoen ondorioz jaisten ari dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

One and Oneren baja

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du Udalak One and Onerekin zeukan "domeinua"ri baja eman zaiola, ez zelako erabiltzen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Antsobiko zuhaitz buruen egurra

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du mendizainaren bitartez Lakabeko bizilagunei proposatu zuela horiek eraman nahi zituzten eta proposamena onartu zutela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Amma Ibañeta Zahar Etxea

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du bilera egin zela Amma Ibañetan eta Gaztelu zinegotzia joan zela bere izenean, eta ebazpena eman behar duela zinegotzi horri ahalmena emateko Udalaren izenean Amma Ibañetako Batzordera joateko, berak gai ekonomikoak ez dituelako menperatzen eta Gaztelu zinegotziak berriz bai.

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du egoitza txikia dela, 40 eta 50 plaza bitartekoa, eta galerarik ez izateko %100ean beteta egon behar duela. Modu berean esan du berak galdetu zuela dituzten kredituei buruz, norekin, interes tipoa, etab., eta esan diotela tipoa aldagarria dela baina %5eko finkoa duela, mailegua 2011n eskatu zela, nahaspila handia zegoen unean, eta berak esan zuela punturen bat jaitsiko balute diferentzia handia nabarituko luketeela. Mailegu hori eraikina urgentziaz berritzeko hartu zen, hasiera batean obrak gaizki egin zirelako, eta egin zituenak ezin zituelako konpondu porrot egoeran baizegoen.

Egoerari konponbidea bilatzeko kapital soziala jaitsi da eta horrek galerak orekatzeko balio izan du. Modu berean jakinarazi du egoitzaren plaza libreen prezioa Iruñeko plaza itunduen prezioa baino merkeagoa dela. Eta bukatzeko jakinarazi du badirudiela enpresa frantses talde bati salduko diotela.

Luzaide/Valcarlos-Irati-Irratia

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du Luzaideko udalak jakinarazpena igorri duela esanez ezin dutela Irati Irratiaren kuota ordaindu eta, hortaz, Aurizko Udalak erantzukizun zibileko aseguru bere gain hartu beharko du, gehi 450 euroko kuota.

18.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Dufur zinegotziak hitza hartu du eta esan du lpetean sasi-garbiketa egin behar dela, eta Karrika zinegotziak dio atoi bat dagoela han eta ez dakigula norena den, eta hori ere kendu beharko litzatekeela, eta Gaztelu zinegotziak gaineratu du zuhaitz baten abarra erori dela eta hori ere kendu behar dela eta alkateak, de Potestad jk., dio lan horiek algoazilak eta kontratatutako langileek eginen dituztela.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 19:50ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.